PLT-C-2024-0007
JRR/ld

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, ARTAPENEKO ETA SISTEMA ADIMENDUNETAKO ZERBITZUKO SASIAK KENTZEKO BESOA ETA PUTZ EGITEKO OSAGARRIAZ EKIPATURIKO FUNTZIO ANITZETARAKO HIRU MAKINA HORNITZEKO ETA ESKURATZEKO, ETA LAU SABELEKO BESODUN TRAKTOREAK BESTERENTZEKO.

(1-SM-22/2024)

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA:

Kontratuaren objektua izango da funtzio anitzetarako hiru makina berrien (lehenengo matrikulazioa) hornikuntza, errepide eta beste bide motetako mantentze eta segurtasun lanak egiteko bereziki diseinatuak. Makina hauek bi osagarri nagusirekin hornituko dira, landaretza moztu eta birrintzeko sasiak kentzeko besoa eta airearen bidez galtzada eta bazterrak garbitzeko putz egiteko makina.

Hornituko diren makinak Departamentuko Berezko Baliabideek dituzten Tolosa, Azpeitia eta Urretxuko eraikinetan jasoko dira, eta besterenduko diren SMA Jaguar 2052 sabeleko besodun lau Deutz Agroton 100 traktoreak leku berdinetatik eramango dira, Andoaingo baseaz gain.

2.- HORNITU BEHARREKO MAKINEN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Hurrengo ataletan, makinaren eta elementuen ezaugarriak zehazten dira. Adierazitako ezaugarri guztiak egin nahi den lanerako gutxienekotzat hartu behar dira. Hala ere, makinaren eragiketa hobetzen eta optimizatzen duten beste ezaugarri batzuk onartu eta baloratuko dira, antzekoak edota hobeak.

<u>Makina hidrostatika trinkoa</u>:

- Diesel motorra, 100 ZPko (74,5 kW) gutxieneko potentziarekin.
- Presio altuko common rail injekzioa.
- Gutxienez 80 A-ko alternadorea.
- Motorraren datuak kontrolatzeko ordenagailua makinan bertan.
- Abiadura aldagarri jarraidun transmisio hidrostatikoa.
- Haizagailu alderantzikagarria.
- Gutxienez bi erlaziodun aldaketa-kutxa.
- Garraiorako eta osagarrietarako zirkuitu hidrauliko independenteak.
- Lotura azkarreko banatzaile hidraulikoak makinaren aurrekaldean eta atzekaldean.
- Mugimendu flotatzailea banatzailearen elementu batean.

<u>Lekualdaketa eta maniobragarritasuna</u>:

- Abiadura maximoa 35 km/h gutxienez.
- Lau gurpiletarako transmisio iraunkorra, 4x4.
- Lekualdaketa diagonala baimendu ditzaketen norabide-sistemak baloratuko dira.

ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774

Segurtasun sistemak:

- Zerbitzurako balazta hidraulikoak lau gurpiletan, olioan blaidun diskodunak.
- Gelditze balazta.
- Ardatzen blokeo diferentziala.
- Kabina gaineko bi V-2 led argiak, etengailua kabina barruan delarik.

Makinaren funtzionalitatea:

- Makinaren luzeera maximoa, jasota dagoelarik: 5,00 metro.
- Homologaturiko atoietarko lotura sistemak.
- Konexio elektrikoak entxufe azkar eta iragazgaitzekin.

Makinaren elementuak:

- Industrial motako neumatikoak.
- Su-itzalgailua.
- Indar hartuneak izatea baloratuko da.
- Lan tresnetarako kutxa.
- Ur bidoia.

Kabina:

- Kabina hosgabetua.
- Gauzen erorketaren kontrako babesa.
- Iraultzearen kontrako babesa.
- Esekitze neumatiko eta gerrialde doiketadun eserlekua.
- Bolantearen zutabe teleskopikoa, altueran eta inklinazioan doigarria.
- Beso-euskarria funtzio askotariko joystickarekin.
- Kabina 360º ikusteko ahalmenarekin, eta sabai panoramikoa.
- Igorgailu, bluetooth eta GPS aurkitzailerako aurreinstalazioa.
- Angelu handiko atzerako ispilua.
- Aire girotua edo klimatizatzailea.
- Polenaren kontrako iragazkia.
- LED / halogenodun lan argiak, aurrean eta atzekaldea, orientagarriak eta fabrikatik jatorrizkoak.
- Atzerako martxan abisatzailea.
- Atzerako martxan kamera.
- Alderantzikagailu elektrikoa, aurrera/atzera.
- 12 V-ko korronte hartunea.
- Olioaren temperatura ikusteko sistema izatea baloratuko da.

Besoa:

- Gorputz teleskopikodun besoa, 6 metro baino gehiagoko irismenaz.
- Sasiak kentzeko osagarriak metro bateko zabalera, gutxienez.
- Sasietarako osagarrian ponpa independentea.
- Osagarria biratzeko ahalmena.
- Ekipoen suspentsio hidraulikoa, gases aurrekargaturiko metatzaileekin.
- Plaka bakarrean hartune hidrauliko guztiak konektatzeko aukera.

ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774

Putz egiteko makina:

- Airea puzteko makina hidraulikoa ponpa ta potentzia neurtzeko gailu elektroniko independenteaz.

Normatibaren betetzea:

- DM2006/42/CE (R.D. 1.644/2008 y R.D. 494/2012) Makinen Direktiba.
- (R.D. 750/2010) homologazio prozedurak.
- Ibilgailuen Erreglamendu Orokorraren (RD 2822/1998) XI eranskina betetzen duen balizajea, 3 klaseko eta 10 zentimetroko zabalera duten banda fluoreszenteekin ibilgailuaren behekaldean.

Besteak:

- Garraioa barne, eta zehaztutako baseetan egingo da hornikuntza.
- Agiri guztien izapidetzea barne.
- Matrikulazioa esleipendunaren ardura da.
- Gutxieneko 2 urteko bermea.
- GFA-DFG marka korporatiboa.
- Makina eta besoa “trafiko laranja” (RAL 2009) koloreaz margoztua egotea baloratuko da, eta hein txikiagoan, antzekoak diren hurrengo alternatibak: RAL 2003, 2004, 2008 y/o 2011.

3.- ANTOLAKETA LOGISTIKOA:

Saldu ondoko zerbitzua faktore garrantzitsutzat jotzen da. Ondorioz, zerbitzu horren kalitatea baloratuko da, eta, horretarako, kontuan hartuko dira tailerren kokapena eta hornitutako makinerian sor daitezkeen gorabeherei erantzuteko eskura dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak. Hauek dira GFAren gutxieneko eskakizunak eremu horretan:

- Gipuzkoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik 100 km-ra, gutxienez, tailer bat, norberarena edo lankidetzan.
- Aurreko puntuan sartutako tailerren azalera, gutxienez, 100 m^2-koa da.
- 2 pertsona, gutxienez, tailer horietan, mantentze-lanetan dihardutenak eta trebatuak.
- Landan gorabeherei aurre egiteko gutxienez ibilgailu mugikor bat izatea.

Atal hau, gainontzeko irizpideak bezala automatikoki baloratuko da Agiri Administratiboan zehazten den moduan.

4.- PRESTAKUNTZA IKASTAROA:

Adjudikaziodunak prestakuntza ikastaro bat eskainiko du makinen maneiuari, funtzionamenduari eta mantentze lanei buruz, gidari makinistei zuzendua eta langile gaituek emana. Ikastaro honen kostua hornitutako makineriaren eskaintzan sartuko da eta, beraz, ez dio inolako kostu gehigarririk ekarriko GFAri.

ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774

Era berean, bere gain hartuko du makineria-parkeko mekanikarien prestakuntza espezifikoa, makinaren deskribapenari eta ezaugarri teknikoei, ikuskapen eta kontserbazio puntuei, konponketa txikiei eta abarri buruz, eta markako teknikari kualifikatuek emango dute.

5.- BESTERENDU BEHARREKO MAKINERIAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Besterendu beharreko hiru traktoreen ezaugarriak taula honetan jasotzen dira, 96.000,00 euroko tasazio balioa batzen dutelarik *(ikusi erantsitako tasazio txostena)*:

Traktore marka	**DEUTZ**	**DEUTZ**	**DEUTZ**	**DEUTZ**
Traktore mota	Agroton 100	Agroton 100	Agroton 100	Agroton 100
Besoaren marka	SMA	SMA	SMA	SMA
Besoaren mota	Ventral Jaguar 2052	Ventral Jaguar 2052	Ventral Jaguar 2052	Ventral Jaguar 2052
Osagarria	Sasiak kentzeko	Sasiak kentzeko	Sasiak kentzeko	Sasiak kentzeko
Potentzia	100 ZP	100 ZP	100 ZP	100 ZP
Matrikula	E 6411 BDM	E 6412 BDM	E 6413 BDM	E 6414 BDM
Matrikulazioa	2006ko apirila	2006ko apirila	2006ko apirila	2006ko apirila
Traktore pisua	4.460 kg	4.460 kg	4.460 kg	4.460 kg
Kokapena	Andoaingo basea	Tolosako basea	Azpeitiako basea	Urretxuko basea
Traktore orduak	4.150	6.328	5.451	5.720
Beso orduak	3.185	4.575	4.272	3.889
Tasazioa	19.000 €	22.500 €	28.000 €	26.500 €

ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774

PLT-C-2024-0007
JRR/ld




E-6411-BDM (Andoain)




E-6412-BDM (Tolosa)




E-6413-BDM (Azpeitia)




E-6414-BDM (Urretxu)

ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774

6.- AURREKONTUA

Hornidura kontratua unitateko preziokoa izango da, eta enpresa interesdunek sasiak kentzeko makinetako unitate bakoitzerako eskainitako prezioa eskaini beharko dute. Kalkulatzen da makina bakoitzaren kostu unitarioa 252.250,00 € + BEZa izango dela.

Hornitu beharreko unitateak hiru dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsia eskainitako balioaren hirukoitza izango da, eta 756.750,00 eurokoa izango da, BEZik gabe.

Era berean, besterendu beharreko makineriaren tasazioari buruzko peritu txostenak 96.000,00 euroan baloratu ditu besterenduko diren lau traktoreak. GFAk aukera emango die hala eskatzen duten enpresa interesdunei, eskaintzak aurkezteko epean instalazioetara bisita bat egin ahal izateko.

Beraz, eskuratze horretarako aurreikusitako lizitazio tasa 819.667,50 € da, kontratuaren balio zenbatetsiari BEZaren % 21 aplikatuta eta besterendutako balioa deskontatuta ateratzen dena.

7.- ENTREGATZEKO EPEA:

Entregatzeko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, kontratatutako hiru unitateentzat.

EKS | CSV: **ACTAfc10a24c-31ff-4fa7-abb1-3392ccd84774**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2024-0007 EUSKERA.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
RABAGO RUIZ, JON BENJAMIN - INSTALAZIOETAKO ERDI TEKNIKARIA
Data / Fecha: 2024/05/10 13:41:58

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
CAPETILLO ARRANZ, Ane Miren - AB INSTALAZIO ETA EKIPAMENDU ADIMENDUAK // JSC INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO INTELIGENTE
Data / Fecha: 2024/05/10 13:44:17

Sinatzailea 3 / Firmante 3:
ZUFIRIA ZATARAIN, Iñigo - JEFE DE SERVICIO DE CONSERVACION Y SISTEMAS INTELIGENTES
Data / Fecha: 2024/05/10 14:42:28